

ETXAGOK AMA BEGIRA

2011KO ABENDUA - 154 ZKIA



TOPALEKUKO EGITARAUUA

Saio didaktikoa

Abenduak 16, ostirala, 19:00tan

REVOLTA PERMANENT



Revolta Permanent Iker Aginaga eta Iker Villa abeslariak osatzen duten rap / hip-hop taldea da. Euskara eta gaztelera uztartzen dituzte bi nerabe barakaldoar hauek, eta "Kantuka" edo "Garrasi egin" bezalako kantuekin bat baino gehiago zur eta lur utzi gaituzte.

ETXAGOKA AMA BEGIRA - 2011KO ABENDUA - 154. ZKIA

TOPALEKUKO EGITARAU

diskofesta-kotiloia

SOUND PROJECT-en eskutik

Abenduak 23, ostirala, 18:00etan



TOPALEKUKO EGITARAU

III. MUS txapelketa



Abendua 30, ostirala, 18:30etan
Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte

TOPALEKUKO EGITARAUUA

IRTEERA GAZTEEN

GABONETAKO PARKERA

Gabonetako gure egitarauan ohikoa bilakatu da Bilboko Gazteen Gabonetako Parkera irteera. Aurten ere, nola ez, irteera hau antolatu dugu egun osorako plan dibertigarria izan dezazuen urtea hasteko: jolasak, jokuak, denborapasak eta gazteen asisialdirako imajina dezakezuen beste hainbat proposamen.

Gogoratu, irteera guztietan bezala, guraso edo tutoreen baimena ezinbestekoa izango duzuela, eta baita bazkaltzekoa zeuk eraman beharko duzuela ere.



URTARRILAK 3, ASTEARTEA, EGUN OSOAN ZEHAR
IZEN-EMATE EPEA: ABENDUAREN 21A ARTE

GAZTELEKUKO BERTSO PAPER LEHIAKETA



Hemen daukagu berriz ere dagoeneko klasiko bat bilakatzeko bidean den lehiaketa. Aurreko bi ediziotan izandako harrera bikaina ikusita, ezin genion aurten uko egin antolatzeari, eta Bertso Eskolako lagunen bultzadarekin, abiatu dugu berriro hirugarren edizio hau.

Txapelketa, aurreko urteetan bezalaxe, 2 sailetan banatuko da: LHko 5. eta 6. mailako ikasleak alde batetik, eta DBH eta Batxilergoko ikasleak bestetik. Jarraitu adi-adi jarriko ditugun kartelak, bertan jasoko duzue-eta xehetasun gehiagorekin egin beharreko lana. Anima zaitetze parte hartzera.

*Lanak aurkezteko azken data: Urtarrilak 20
Antolatzaileak: Oñatiko Bertso Eskola + Gaztelekua*

TOPALEKUKO EGITARAU

GABONETAKO

VI. ARGAZKI

LEHIAKETA

GAIA: Gabonak 2011

ADINA: 12-17 urte

EPEA: Urtarrilak 13a arte

NOLA AURKEZTU: paperean edo
euskarri digitalean

NON AURKEZTU: Gaztelekuko
Gazte Informazio Puntuan

SARIAK: 50 € irabazlearentzat
eta 40 € bigarrenarentzat (liburu,
bideojoku edo antzekotan gastatzekoak)





gazte
INFORMAZIO PUNTUA

Oñatiko Gaztelekua - Foruen enparantza 4
943 718 257 - gazteinformazioa@oinati.net

ESKI GARAIA

Negua eta hotza iritsi dira gurera, eta elurra ere laister izango dugu gailurretan. Eta nola ez, garai honetan eskiak jazteko gogoia jasan ezina bilakatzen hasi da zuetako askorentzat ... Ba hemen jartzen dizkizuegu hainbat helbide behar duzuen informazio guztia topa dezazuen.

Astun (Huesca):	www.astun.com
Candanchu (Huesca):	www.candanchu.com
Formigal (Huesca):	www.formigal.com
Cerler (Huesca):	www.cerler.com
Panticosa (Huesca):	www.aramonpanticosa.com
Boi Taül Resort (Lleida):	www.boitaulresort.es
Baqueira Beret (Lleida):	www.baqueira.es
La Molina (Girona):	http://hivern.lamolina.cat
Masella (Girona):	www.masella.com
Vallter 2000 (Girona):	www.vallter2000.com
Valdezcaray (Errioxa):	www.valdezcaray.es
Alto Campoo (Cantabria):	www.altocampoo.com
Pal-Arinsal (Andorra):	www.vallnord.com
Grandvalira (Andorra):	www.grandvalira.com
Pirinioak:	www.pyrenees.net
Informazio orokorra:	www.infonieve.es